

emari ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan

Berezko Tituluko Proiektua

**CORPUSEN ETA HORIEK USTIATZEKO
TRESNEN ERABILERA HIZKUNTZA -
IRAKASKUNTZAN**

Egilea: Ziortza Elorriaga Echevarria

Tutoreak: Mikel Iruskieta eta Montse Maritxalar



2017

Laburpena

Lan honen helburu nagusia unibertsitateko zenbait ikasleek idatzitako testuek osatzen duten corpusa aztertzea izango da; horrela zenbait ezaugarri linguistiko ikertu eta ikasle horiek HABEk ezartzen dituen baldintzen arabera C1 mailatik edo B2 mailatik hurbilago kokatzen diren jakingo dugu. Azterketa hori egin ahal izateko, sarean aurki daitekeen ANALHITZA baliabidea erabiliko dugu.

Beraz, corpusetan oinarritutako metodoak hizkuntzen irakaskuntzan zein emaitza eta ondorio izan ditzakeen ikusiko da. Horretarako, lehenengo, hizkuntzak irakasteko metodo horretara iritsi arte nagusitutako metodo edota estrategiak ere ezagutu eta errepatatuko ditugu.

Emaitzei dagokienez, ANALHITZAK eskaintzen duen azterketa zehaztuaz gain, eskuz egindako ikerketari esker lortutako datuak azalduko dira. Horrela, lexikoaz aparte, ortografia, edota subjektu eta aditzaren arteko komunztadurarekiko ikasleek duten menperatze maila zein den jakin ahal izango dugu. Aipatutako kontrol maila hori erabakigarria izango da ikasleak C1 edo B2 mailan kokatzeko; izan ere, emaitza horietan oinarrituko gara ondorio objektiboak atera eta ikaslea hizkuntza maila jakin batean aurkitzen dela baieztatzeko.

Gaien aurkibideak

Laburpena	1
Gaien aurkibideak	2
Irudien aurkibidea	3
<u>1. Kapitulua: Sarrera</u>	4
<u>2. Kapitulua: Proiektuaren helburuak</u>	6
<u>3. Kapitulua: Proiektuaren garapena</u>	7
<u>4. Kapitulua: Emaitzak</u>	17
<u>5. kapitulua: Ondorioak</u>	25
<u>6. Kapitulua: Bibliografia</u>	28

Irudien aurkibidea

TAULAK

1. taula.....	18
2. taula.....	19
3. taula.....	19

IRUDIAK

1. irudia.....	20
2. irudia.....	21
3. irudia.....	21

GRAFIKOAK

1. grafikoa.....	23
------------------	----

1.KAPITULUA

Sarrera

Teknologia berrien esparrua oso garrantzitsua da gaurko ikasleen bizitzan. Eskolan bai unibertsitatean, gero eta gehiago erabiltzen dituzte teknologia berri hauek, ikasle gehienek beraien ordenagailu propioa dutelarik. Lan honek, hain zuzen ere, hizkuntzen irakaskuntza eta horretarako erabil daitezkeen IKT baliabideak uztartu nahi ditu; unibertsitate bateko ikasleek idazten dituzten testuak zein ezaugarri linguistiko dituzten sarean aurki dezakegun baliabide automatiko baten bitartez aztertuz, hein handi batean. Baliabide hori ANALHITZA da.

Horrela, hizkuntzen irakaskuntza eta berorretarako IKT baliabideak uztartzen dituen ikerketa hau egin ahal izateko, bi bloke banatu eta horietan sakonduko dugu; batetik historiako etapa bakoitzean hizkuntzen irakaskuntzarako zein metodo desberdin garatu diren ezagutuko dugu; izan ere, historian zehar era desberdinean garatu eta tratatu izan baita hizkuntzen irakaskuntza. Bestetik, metodo horiei esker, ikasleek hizkuntzarekiko lortu ditzaketen maila ezberdinak eta horiek menperatzeko baldintzak zeintzuk diren ikusiko dugu; horretarako oinarritzat HABEren dokumentua erabiliko dugularik.

Ikerketa hau posible egiteko, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako 4. mailako ikasleek idatzitako 50 testuz osatutako corpusa erabiliko dugu. Salbuespenak salbuespen 22 urteko batz bestekoa duten ikasle hauek idatzitako testuak hizkuntzen irakaskuntza eta berrikuntzari buruzko iritzi akademikoak dira.

Ikasle horiei dagokienez, zera esan behar dugu: ikasle bakoitzak bere hizkuntza maila bat izango du; horretan eragina izango duelarik ikasle bakoitzaren testuinguru soziolinguistiko eta soziokulturalak, batik bat. Horregatik, mailari dagokionez haien artean oso desberdinak diren testuak aurkitzea erraza izango da. Beraz, baliteke testu batzuk maila batean kokatzea eta beste batzuk beheragoko batean.

Hizkuntzen irakaskuntzako historiako etapa bakoitzean metodo desberdinak erabili dira; hasieran gramatika arauak zuten garrantzia. Urteek aurrera egin ahala, egitura

sintaktikoei aitortu zioten berebiziko inportantzia. Hala ere, benetako iraultza Hymesek ekarri zuen komunikazio gaitasuna kontzeptua definitu zuenean. Hala, gramatika arauetz gain, erabilera arauak ere kontuan hartu beharrekoak zirela aipatu zuen. Joera berriei dagokienez, aipatutako kontzeptua osatzen joan da azken urteetan Europako Kontseiluak; Europa osorako hizkuntza egitarauak, curriculum-orientazioak, azterketak, testu-liburuak... prestatzeko oinarri bateratua (Hizkuntzan ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa, 2001) sortu zuen.

Azken urteetako joeren artean ezin dugu ukatu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) indar handia hartu dutela eta guztiz baliagarriak izan ahal direla. Horrela, gaur egun corpusetan oinarritutako hizkuntzen irakaskuntza hedatzen ari da.

Corpusetan oinarritutako irakaskuntza aberasgarria izan daiteke corpusaren hizkuntzalaritzak testuinguru naturaletan jasotako testu errealetako adibideak hartzen dituelako ardatz. Hizkuntza irakasten da egitura jakinek benetako erabileran duten testuingurua, maiztasuna... aztertuz.

Hala, ikerketa honetan ondorengo atalak garatuko dira: proiektuaren marko teorikoa zenbait kontzeptu argituz; marko metodologikoa, prozedura eta lagina azaltzeko; ikerketa egin eta gero lortutako emaitzak eta horietatik eratorritako ondorioak.

2.KAPITULUA

Proiektuaren helburuak

Proiektua bera garatzen hasi aurretik, ikerketa honen helburuak zehaztuko ditugu. Horrela, atal honen barnean, helburu nagusiak eta konketuak desberdintzen dira.

Helburu nagusiak

- Corpus (testu multzoa) erreala hartu eta testu horietako ezaugarri linguistikoak aztertzea.
- Ikasleen hizkuntza maila zein den aztertzea; horretarako, HABEk ezartzen dituen mailak eta baldintzak hartuko direlarik oinarri gisa..
- Eusko Jaurlaritzaren dekretuak ezartzen duenez (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua), ikasle hauek C1 maila izan ohi dute ikasturtea bukatzean. Hala, maila hori izateko zein baldintza bete behar diren edota hizkuntzaren zein erabilera egin behar den ezagutzea.
- Corpus errealen inguruko emaitzak (testuak aztertzean ikusitako hiztegia maila, errepikatzen diren patroiak, errepikatzen diren akatsak, ...) eta lortu beharreko hizkuntza maila kontuan hartuz ikas-material digital bat proposatzea.

Helburu konketuak

- ANALHITZA tresna erabiliz, ikasleek erabiltzen duten hiztegia aztertu.
- ANALHITZA tresnaz baliatuz, ikasleek erabiltzen dituzten bestelako elementu linguistikoaren patroi orokorrak identifikatu.
- HABEren dokumentua kontuan hartuz, ikasleek eskuratu behar dituzten hizkuntzaren elementu desberdinen (adibidez, lexikoa) maila zehaztea.
- Hizkuntzen irakaskuntzan ikasleentzat baliagarria suerta daitekeen baliabide bat proposatzea.

3.KAPITULUA

Proiektuaren garapena

3.1. Marko teorikoa

3.1.1. Hizkuntzen irakaskuntza

Historian, hainbat metodo garatu dira –lehenengo gramatika liburuetatik hasita gaur eguneko multimedia baliabide ugarietara iritsi arte– hizkuntzen irakaskuntzan sortu izan diren irakaste arazoak erraztu, hobetu eta konpondu nahian. Metodoen eboluzio hori ez da lineala izan: ikuspegi metodologiko batzuk beste batzuei gainezarri zaizkie, eta beste batzuk aldi berean erabili izan dira eta erabiltzen dira.

Hizkuntzen irakaskuntza arloko aditu asko metodo onena aurkitu nahian ibili dira urteetan. Batzuek uste zuten bazegoela ikasle guztientzat eta testuinguru guztietan baliagarria izan zitekeen metodo bat. Dena den, gaur egun zabal dabilen ustea da ez dagoela denentzat balio duen metodo arrakastatsurik.

“Laburbilduz, ez da erraz esaten zein den metodorik baliagarriena ikasleek azkarrago eta hobeto ikas dezaten. Aldez aurretik ikasleen beharrianak argitu behar dira; ondorioz, behar horiei dagozkien helburu posibleak finkatu eta, azkenik, metodoen bat aukeratuta ere, beste metodoekin konparatu, metodo guztiek ez baitute helburu berbera. Bestalde, hainbat irakaslek metodo eklektikoa erabiltzen dutela diote, muzin eginez inongo metodorekiko atxikimenduari. Horiek hainbat metodotatik zatiak hartzen dituzte, beren eguneroko eta curriculumeko premiei ondoen datorkienaren arabera. Azkenik, gaur egun metodo kontzeptua inork gutxik onartzen du, eta, horren ordez, hizkuntza-irakaskuntzaren ikuspegiak, planteamenduak edo printzipioez hitz egiten da irakats ekimena bideratzeko.” (Larrea eta Maia, 2010:184 orr.)

Hizkuntzen irakaskuntzan ikusi da pertsonak gai garela hizkuntzak modu anitzetan ikasteko. Horrenbestez, irakaskuntzaren beharrian aldakorrak kontuan harturik,

metodoak ezagutzeak unean uneko premiak betetzeko irizpide didaktiko egokiena aukeratzen lagun diezaguke.

3.1.1.1. Aurrekariak

Hizkuntzen irakaskuntza esan bezalaxe, aldatzen eta garatzen joan da urteak aurrera egin ahala, metodo tradizionaletatik hasi eta gaur egungo joera berrietara arte.

Metodo tradizionalei dagokienez, eredia idazle klasikoengan dute, berebiziko garrantzia gramatika arauari eskaintzen dielarik.

XIX. eta XX. mendearen hasieran, latinean oinarrituta gramatika itzulpeneko metodoa erabiltzen hasi ziren, lehentasuna hizkuntza idatziak duelarik. Gramatikaren irakaskuntza deduktiboa zen; irakasleak arauak azaldu eta ikasleek arauok barneratzeko ariketak egiten zituzten. Perpausak itzultzea eta hitz zerrenda buruz ikastea balioesten zen. Adibidez, beraien ama hizkuntzan ematen zitzaaien esaldia eta hori ikasten ari ziren hizkuntzara itzuli behar izaten zuten.

XIX. mende hasieran, metodo zuzena ere garatu zen Europan, garrantzia ahozko hizkuntzari eskainiz. Lehen aldiz 4 trebetasunak erabiltzen dira: lehenengo entzun, gero mintzatu, ondoren irakurri eta azkenik idatzi. Gramatikaren irakaskuntza inductiboa zen: benetako hizkuntza adibideak ikusi ondoren, ikasleek gramatika arauari buruzko hipotesiak formulatu, egiaztatu eta zuzendu egiten zituzten. Hizkuntza edukiak azaltzeko xede-hizkuntza erabiltzen zen, eta hitz eta esaldien esanahiak egoera biziaren ikasten ziren. Adibidez, metodo hau lantzen denean testu bat eman eta bertako akatsak identifikatu eta horiek zuzentzeko eskatzen zaie ikasleei.

II. Mundu Gerra garaian, hizkuntza arrotzen irakaskuntzak berebiziko garrantzia hartu zuen. II. Mundu Gerraren amaieratik 70eko hamarkadaren erdialdera arte garatu ziren. Metodo horiek, oro har, egiturei aitortzen diete nagusitasuna, eta egoera anitzetan giro-tutako elkarrizketak baliatzen dituzte.

1950. urtetik aurrera metodo audiolinguala garatu zen Estatu Batuetan. Metodo honen arabera, hizkuntza ohitura-multzoa da; hortaz, beste edozein ohitura edo portaera bezala erantzun sistemaren bidez irakatsi ahal da. Mintzamina eta entzumena lantzea hobesten du, ahozkoa lantzen da ereduak errepikatuz. Ama-hizkuntza erabiltzea gaitzesten du. Gramatikaren irakaskuntza deduktiboa da. Larsen Freemanen (1986) esanetan zenbait teknika erabiltzen dituzte: elkarrizketak buruz ikastea, errepikapen jolasak, elkarrizketak osatzeko jolasak, ...

II. Mundu Gerra amaitutakoan, metodo situazionala garatu zen Britainia Handian. Metodo honen arabera, hizkuntzak izaera funtzionala du, eta hizkuntza eta testuingurua lotzen ditu; hizkuntza edukiak egoera jakinetan aurkezten dira. Gramatika garrantzitsua da, era induktiboan irakasten da eta ikasleei gramatika zuzentasun handia eskatzen zaie.

50eko hamarkadaren amaieran ikus-entzunezko metodoa edo estruktural-globala garatu zen Frantzian. Ahozko komunikazioa lehenesten du. Hizkuntza edukiak egoera anitzetan irakasten dira; esaldi isolatuak baztertzekoak dira, eta ariketa mekanikoak testuinguru jakinetan txertatuta egiten dira, esangura gal ez dadin. Ama-hizkuntza ez da erabiltzen, eta itzulpena baztertzen da.

60ko hamarkadan, zalantzan jarri ziren ordura arteko metodoak. Chomsky hizkuntzalari estatubatuarraren (1965) gramatika sortzaileak aldaketa ekarri zuen; bere esanetan, hizkuntza ez da ohitura-multzoa, ahalmen sortzaile (hizkuntza gaitasuna) baten ondorioa baizik. Hizkuntza sistema da, gramatika unibertsala.

70eko hamarkadan ikuspegi komunikatiboa garatu zen, aurreko metodo estrukturalen aurkako erreakzio moduan. Bide horretan, Hymes hizkuntzalari estatubatuarrak (1972) komunikazio gaitasuna definitu zuen; bere ustez, gramatika-arauez gain hizkuntzaren erabilera-arauek (alderdi soziokulturala) ere kontuan hartu behar dira.

Ikuspegi komunikatiboan, hizkuntzaren helburua komunikazioa da; ikasleek komunikazio gaitasuna garatu behar dute benetako komunikazioa egoeretan erabiltzeko. Gramatikak irizpide funtzionalak izan behar ditu, erabilera bideratuta, eta ez hainbeste eduki hutsetan oinarrituta: gramatika zuzentasunaren eta komunikazio eraginkorraren arteko oreka lortu behar da.

Badira komunikazioan ardaztutako beste metodo batzuk. Horietako batzuk ikuspegi humanistaren barruan sartu izan dira, ikasleen parte-hartze aktiboa eta garapen pertsonala bultzatu nahi dutelako.

Sugestopedia metodo honen printzipio nagusia hauxe da: irakasleak ikasleei erlaxatzen lagundu behar die, horrela, ikasleek hizkuntza eduki gehiago barnera ditzaten. Horretarako zenbait baliabide erabil ditzake: musika, eserleku egokiak, ...

Taldeko hizkuntza ikaskuntzan irakaslea aholkularia da eta ikasleen arteko lankidetzak bultzatzen du. Hizkuntza prozesu soziala da.

Bide isilari dagokionez, irakasleak irakaskuntza prozesuaren kontrola duen bitartean, ahalik eta isilen egon behar du, eta ikasleei adorea eman eta beren baliabideak erabiltzen utzi behar die.

Erantzun fisiko osoan hizkuntza elementuak aurkezteko, irakasleak aginduak eta esakuneak erabiltzen ditu eta ikasleek ekintza fisiko batez erantzun behar dute

Ikuspegi naturalaren helburu nagusia esanahia ulertzea da. Hizkuntzan murgiltzea garrantzitsuagoa da idatzizko adierazpena baino.

80ko hamarkadan, hizkuntzen irakaskuntzan curriculumaren garrantziaz ohartzen hasi ziren, bertan uztartzen baita irakaskuntzaren teoria eta praktika; bertan zehazten dira ikas prozesuaosatzen duten helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.

Horren guztiorren harira, Hymesen komunikazio gaitasuna kontzeptua osatuz joan da azpi-gaitasun batzuekin. Horrela, Canale-k (1983) hizkuntza gaitasuna, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa gehitu zituen; Van Ek-ek (1986), ordea, gaitasun soziokulturala eta gaitasun soziala.

3.1.1.2. Azken urteetako joera

XXI. mendean sartuta, 2001ean, Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa onartu zuen Europako Kontseiluak; Europa osorako hizkuntza egitarauak, curriculum-orientazioak, azterketak, testu-liburuak... prestatzeko oinarri bateratua. Azken batean, ahozko zein idatzizko ulermen-eta adierazpen-mailak neurtzeko nazioarteko estandarra izan nahi du.

Helduen euskalduntzeari dagokionez, azken curriculumak hartu behar dugu gogoan. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak (2015) zehazten ditu helburuak, edukiak, ildo metodologikoak eta ebaluazioa.

Edozein metodo aukeratuta ere, ezin dugu ukatu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) indar handia hartu dutela hizkuntzen irakaskuntzan; eta guztiz baliagarriak dira, ondo erabiliz gero. Lanerako beste ikuspegi bat dakarte, baina horretarako beharrezkoa da prestakuntza sendoa izatea.

3.1.1.3. Hizkuntzen irakaskuntzarako baliabideak: IKT baliabideak

IKT baliabideek bide metodologiko berria ekarri dute hizkuntzen irakaskuntzan. Teknologiak tresna ugari eta era askotakoak eskaintzen ditu, baita irakasteko hainbat modu ere. Horrela, IKT baliabideek irakaste prozesua erakargarriago egin dezakete; izan ere, irakasleek errazago diseina ditzakete ikasleek gusturago bete ditzaketen jarduerak.

Gaur egun, irakasleen erronka ez da IKT baliabideak erabiltzea soilik, baizik eta hizkuntzak irakasteko baliabide teknologiko aproposak eta metodologia eraginkorra uztartzea. Hori dela eta, hizkuntzen irakaskuntzan IKT baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko, metodologia berritzailea bultzatzen duten proposamen didaktikoak izan behar ditugu gogoan..

Irakasleak teknologiak eskaintzen dituen baliabide eragingarriak ezagutu eta baliatu behar ditu, eta hizkuntzak lantzeko sareko aplikazioak proiektu didaktiko interesgarrietan txertatuta proposatu, ez jarduera solte gisa. Era berean, ikasleek aukera izan behar dute hizkuntza erabiltzeko, benetako komunikazio helburua duten ahozko zein idatzizko testuak ulertu eta ekoizteko...

IKT baliabideek aukera ematen dute, besteak beste, hizkuntza trebetasun guztiak – irakurmena, entzumena, mintzamina, idazmena– lantzeko.

Euskararen irakaskuntzari begira lau trebetasunak lantzeko tresnak daude; eta horiekin batera komunikazio gaitasuna osotasunean lantzeko aukera ere eskaintzen dute beste batzuek.

Denetarik lantzeko baliabide horien artean ANALHITZA testu aztertzailea aipatu beharra dago; berau izango baita emaitzak ateratzeko corpusak aztertzeko erabiliko dugun tresna edota baliabidea.

3.1.1.4. Corpus aztertzaile automatikoa: Analhitza

Azken urteetan corpusetan oinarritutako hizkuntzen irakaskuntza hedatzen ari da. Corpusaren hizkuntzalaritzak testuinguru naturaletan, eguneroko bizitzako benetako komunikazio egoeretan, jasotako testu errealetako adibideak ditu ardatz. Hizkuntza irakasten da egitura jakinek benetako erabileran duten testuingurua, maiztasuna... aztertuta.

Corpusa hizkuntza bat irakasten denean abiapuntutzat hartutako testuen bilduma da.

Corpusen azterketak egin ahal izateko beharrezkoa da horiek bilatzea eta biltzea. Corpusak bilatzerakoan zenbait irizpideren arabera definitzen edota zehazten dira. Hizkuntza eskoletako zenbait material idatzi biltzen da, eta ariketen ezaugarrien arabera sailkatzen dira: irakasleak proposatutako ariketa mota eta testua idatzi duen ikaslea. Batzuetan irakasleekin eta ikasleekin egindako elkarrizketei esker lortzen izan da hainbat informazio. Lortutako corpusa, gero beste zenbait azpitaldetan sailkatu edota banatu daiteke, hizkuntza mailaren arabera. 1990 eta 1995 urteen artean euskaraz lortutako corpusak 350 testu zituen barnean eta horiek hiru taldeetan banatu zituzten; hizkuntza mailarik baxuena zutenak, erdi mailako testuak eta maila altuko idatziak.

Ikasleen corpusaren azterketa funtsezkoa da. Hizkuntzaren irakaskuntzan lagungarri izan daitezkeen tresnak garatu nahi baditugu lehenengo dauden beharrak identifikatu behar ditugu. Alde batetik, beharren azterketa hau mugatuta dago, noski, oraingoz ezagutza idatziari bakarrik begiratzen baitio; beste alde batetik, ikasleek idatzitako corpus handiek datu objektiboak ematen dizkigute. Gaur egun, irakaskuntzan adituak diren irakasleek, esperientzia enpirikoaren jabe izan arren, beren tesiak ezin dituzte era objektiboan frogatu. Objektibotasun hori lortzeko bidea irekitzen du ikasleen corpusak.

Hasieran, errore tipikoen bilduma egiteko Etikerro izeneko aplikazioa diseinatu zuten. Horrela, corpusak aztertzean, garrantzitsua zen aurkitutako errore tipikoen ikerketa egitea; are gehiago, irakatsi beharreko hizkuntza estandarizazio prozesuan dagoenean. Aplikazio honen helburu nagusia errorearen tratamendu automatikoa ahalbidetzea zen, corpusetan identifikatutako errore tipikoak etiketatzeko aukera emanez.

Hizkuntzaren tratamendu automatikoa erabiltzeko, arlo horretan garatzen diren tresnen ikuspuntua aldatu beharra dago, hizkuntzen ikasketarako baliagarriak izatea nahi bada. Izan ere, ikasle bakoitzari laguntza berezitua eman nahi diogu berak daukan jakintza-mailaren arabera. Horretarako, beharrezkoa da ikaslearen tarte hizkuntza integratzea tresna horietan, ikasle bakoitzak daukan hizkuntzaren ezagutza kontuan hartzeko.

Hizkuntzaren tratamendu automatikoak duen potentziala kontuan hartuz, gaur egun, badira errorearen detekzioaz gain idazlanen ebaluazio automatikoa lantzen duten programak ; horien artean Analhitza aurki dezakegularik.

ANALHITZA izango da marko metodologikoan deskribatuko den corpora aztertzeko erabiliko dugun baliabidea.

ANALHITZA Clarin-k Proiektuaren barne IXA taldeak garatu duen erreminta bat da. Erreminta honekin testu luzeetatik era sinple batean informazio linguistikoa lor daiteke. Gainera, hiru hizkuntzetan -euskaraz, gaztelera eta ingelesez- idatzitako testuak analizatzen ditu.

Erreminta honi esker testu bateko hitzak edota letrak kontatu daitezke, beste batzuen artean eta hitz horiek formaren edo kategoriaren arabera sailka daitezke. Testua ANALHITZAren bidez analizatzeko hiru aukera daude: batetik, bakoitzak bere ordenagailuan daukan fitxategi bat igo dezake; bestetik, testu bat idatz daiteke edota URL txertatu. Fitxategia igo ezker, txt eta UTF-8 formatuan egon behar da analizatzerako orduan arazorik egon ez dadin. Behin hiru hauetako bat aukeratu ostean, testu hori zein hizkuntzatan idatzita dagoen zehaztu behar da analizatzera bidali aurretik.

Analisia egiteko agindua ematen denean, ANALHITZAK segundo batzuk beharko ditu analisia egiteko. Segundo horiek testuaren tamainaren eta Interneteko konexioaren arabera gehiago edo gutxiago izango dira.

Edozein testu aztertu ostean, informazio linguistiko ugari jasoko dugu: Hasieran, zenbat hitz, hizki eta lema dauden azaltzen da; horrez gain, hitz mota bakoitzeko zenbat dauden ere agertzen da. Jarraian banan – banan testu horretan agertzen diren izenak, adjektiboak, aditzak, adberbioak, determinatzaileak, konjuntzioak, preposizioak, kasuak, entitateak, lema, hitzak eta hizkiak zerrendatu eta bakoitza zenbat aldiz agertzen den zehazten da. Gainera, bigramak, trigramak eta kuartigramak eta testu lematizatua ere eskaintzen ditu ANALHITZAREN analisiak.

Lortutako informazio guztiak ikasleak zein hizkuntza mailatan dauden jakiteko balio behar digu.

3.1.2. Hizkuntza mailak

Proiektu honen helburuak errepasatuz horietako bat ikasleen hizkuntza maila azterzea izango da. Horretarako “Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum” izeneko dokumentuan oinarrituko gara. Dokumentua hau 2015eko azaroan argitaratu zuen HABEK. Dokumentu honetan agertzen diren mailen deskribapenak ezinbestekoak izango dira aztertutako corpusak duen hizkuntza maila zehazteko.

Dokumentu honetan Europako Erreferentzia Marko Bateratuan agertzen diren hizkuntza mailak banan – banan deskribatzen dira. Horrez gain, trebetasun bakoitzean maila eskuratzeko eskatzen dena zehazteaz gain, edukiak, ebaluazioa eta ildo metodologikoak ere azaltzen dira.

A1 eta A2 mailen xedea eguneroko gaiei buruzko euskarazko testu laburrak ulertzea, eta ahoz zein idatziz euskara elkarreraginean erabiltzea da, labur eta sinple, baina egoki eta eraginkor.

A1 maila duen ikaslea hasierako erabiltzailea da. Gai da eguneroko harremanetan eta aurrez aurreko testuinguru ezagunetan beharrezkoak diren hitzak eta esapide sinpleak ulertzeko eta erabiltzeko, baita berehalako premiei lotutako galderei erantzuteko ere.

A2 maila duen ikaslea oinarrizko erabiltzailea da. Gai da egoera ezagunetan kideekin aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak eta azalpen errazak egiteko eta ulertzeko, baldin eta bere esperientzia-esparruarekin loturiko gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena eskatzen badute: bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzkoa.

B1 eta B2 mailetan kokatutako ikasleak erabiltzaile aurreratuak dira. Bloke honetako helburu nagusia ikasleak ohiko testuinguru, gai eta egoera ezagunetan instrukzioak, kontaketa laburrak eta azalpen-testuak ulertzea da, eta, ahoz zein idatziz, euskara zehaztasunez eta eraginkortasunez erabiltzea.

Horrez gain, ikasleak elkarreraginean, bere lan-esparruko gaiei buruz, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz, deskribapenak egitea eta azalpenak eta iritziak eraginkortasunez ematea ere bilatuko da.

B1 mailako erabiltzaile independentea gai da eguneroko testuinguru ezagunetan eta maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko. Era berean, gai da lagunei, senideei eta ikaskideei edo lankideei instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta gertaeren kontaketa laburrak egiteko. Gainera, bere iritziak labur-labur emateko eta bere asmoak azaltzeko gai ere bada.

B2 mailan dagoen ikaslea erabiltzaile aurreratua izango da. Gai orokor nahiz abstraktuei buruz aurrez aurre duen solaskideen zein komunikabideetako esatarien testu gehienak ulertzen ditu, eta ongi bereiziko ditu ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Gai da lagun eta lankideekin, baita jatorrizko hitzuneekin ere, ohiko

elkarreraginean jarotasunez aritzeko, besteak jakinaren gainean jarriz, iritzia eskatuz edota bere ikuspegia defendatuz. Ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere iritzia ere eraginkortasunez emango du.

C1 eta C2 mailako erabiltzaileak adituak dira. Maila honetako erabiltzaileak gai izan behar dira eremu profesional, publiko zein pertsonalean era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko era landu eta jantzian, ahoz zein idatziz solaskidearen jarrera edota euren arteko harreman-maila zeinahi delarik, hizkuntza-adierazleak estrategikoki erabiliz eta hizkeraren maila denotatiboa eta konnotatiboa bereiziz.

C1 mailako erabiltzaile gaitua gai da lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu ulertzeko; baita inguruko herri-hizkeran sortutakoak ere. Eta gai da, era berean, lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jarotasunez eta eraginkortasunez adierazteko.

Ongi egituratutako eta osatutako testu argiak eta zehatzak idazten ditu, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, estrategia egokiak aukeratuz. Era berean, bere ikuspuntua adierazteko gai da, adibide egokiak emanez.

C2 maila duen ikaslea erabiltzaile aditua izango da. Kasu honetan, gai da norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokituz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko.

Gainera, jarotasun handiz eta zehaztasunez, adierazten ditu gauzak, eta konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizten daki.

3.2. Marko metodologikoa

3.2.1. Prozedura

Ikerketa hau egitean, arestian aipatutako helburuak hartuko dira kontuan. Horiek lortzeko bidean, ondorengo prozedura jarraituko da:

Hasteko, corpusa edo testu multzoa ANALHITZA tresnatik pasatu eta testu horien ezaugarri linguistiko nagusiak aterako dira. Horrela, testuetako hiztegia, edota hizkuntzari dagozkion beste elementu batzuen inguruko patroi orokorrak ikusi eta aztertuko dira.

Gainera, mailari dagokion hiztegia ere aztertuko da. Horretarako, HABEk argitaratutako Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum baliatuko dugu. Dokumentu horrek diona eta corpusaren azterketaren emaitzak erkatuko ditugu. Horrela, ikasleen hizkuntza maila teorikoki izan beharko luketen C1 mailara edo, ostera, B2 mailara hurbiltzen den egiaztatu ahalko dugu.

Beste alde batetik, aipatutako curriculum aztertuko dugu, ikasleek izan beharreko hizkuntzari dagozkion gaitasunen edo konpetentzien maila zehaztu ahal izateko. Era horretan, ikasleek gramatikari, lexikoari edota hizkuntzari dagozkion beste atal batzuei dagokienez, zein gaitasun edo konpetentzia maila eskuratu behar duten jakin ahal izango dugu.

Ondoren, testu multzoaren azterketaren emaitzak eta curriculum kontuan hartuta, hizkuntzen irakaskuntzarako baliabide bat proposatuko ditugu, bai lexikoari edota beste aspektu batzuei lotuta.

3.2.2. Lagina

Ikerketa honetan, zenbait testu aztertuko dira. Zehazki 50 testuz osatutako corpusa baliatuko dugu. Testu horiek Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan ikasten duten 4. mailako zenbait ikaslek idatzi zituzten.

Ikasle horien batz besteko adina 22 urtekoa da; hala ere, bada nagusiagoa den ikasleren bat edo beste.

Testu motari dagokionez, iritzi akademikoa da; eta gaia, berriz, hizkuntzen irakaskuntza eta berrikuntza.

Aipatu dugunez, ikasleak 4. mailan daude, eta horrek Eusko Jaurlaritzaren dekretuak ezartzen duenez (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua) C1 maila dute eta ikasturtea bukatzean ziurtagiri hori emango zaie, baina ikasleek 4. maila bukatzean hizkuntza gaitasunari dagokionez, C1 maila duten aztertuko dugu tresna automatikoei esker.

4.KAPITULUA

Emaitzak

Proiektu honen helburuen atalari erreparatuz; zenbait deskribatu ditugula ikus daiteke; horien artean, ikasleen hizkuntza maila aztertzea. Beraz, atal honetan ikasleen hizkuntza maila aztertuko dugu hizkuntzari dagozkion hainbat alderdi kontuan hartuz: lexikoa, ortografia, subjektu eta aditzaren arteko komunztadura, ... Horrela, azterketaren emaitzak azalduta, ikasleek Gradua amaitu bezain laster lortuko duten C1 mailarako curriculumak ezartzen dituen gaitasun edota konpetentziak erdietsi dituzten ondorioztatu ahal izango da.

1. LEXIKOA

Lexikoari dagokionez, hizkuntzalaritzan, lexikoa hizkuntza bateko lema edo, zentzu zabalago batean, hitzen multzoa da. Hizkuntzaren aspektu hau orokorrean eta ANALHITZAK luzatutako emaitzei esker kategoriaka aztertu da.

Corpusaren lexikoa orokorrean egokia da; eta kasu batzuetan anitza ere bada; izan ere, hitz bera aipatzeko sinonimo desberdinak erabiltzen baitira. Hala ere, besteekin konparatuz, maila altuagoa duten hiruzpalau testu ere aurki izan ditut; horietan lexiko anitzaz gain, egitura desberdin asko eta aberatsak aurkitu izan ditut.

Lexikoki anitzegiak ez diren testuetara jotzen badugu, ikus dezakegu esaldi berean aditz bera bi aldiz errepikatzen dela beharrezkoa ez denean. Horretarako adibide hau aztertu dezakegu:

“Horrekin esan nahi dut, berritzailea izatea ez dela erraza, dauden jarduerak birplanteatu behar ditugulako edota jarduera berriak sortu behar ditugulako; eta horrek, denbora asko suposatzen du.”

Adibide horretan soberan legoke lehenengo edota bigarren aditza.

Maila altuagoa duten testuari jotzen badugu, esanahi bera duen hitza izendatzeko hainbat sinonimo erabiltzen dituztela ikusi ahal izango dugu; horrela aipagarriak dira ondorengo sinonimo multzoak:

- Ume, haur
- Baliabide, medio, material
- Irakasleak, hezitzaileak

Lexikoa ANALHITZAK eskainitako emaitzak ikusita aztertuz gero, kasu desberdinak aurki ditzakegu. Corpora osatzen duten testu guztietan erabiltzen diren kategoriak berdinak dira; horien artean izenak, adjetiboak eta aditzak nagusitzen direlarik. Hurrengo taulan aipatutakoa zenbakien bidez ikus daiteke; izan ere, kategoria bakoitzeko zenbat hitz dauden eta horien artean desberdinak zenbat diren zehazten baitugu ANALHITZAK:

ESTADÍSTIKAK			
hizkiak:	3223 token	35 mota	(1.09%)
hitzak:	487 token	352 mota	(72.28%)
lemak:	487 token	267 mota	(54.83%)
izenak:	207 token	140 mota	(42.51% of hitzak)
adjetiboak:	42 token	38 mota	(9.82% of hitzak)
aditzak:	145 token	52 mota	(32.97% of hitzak)
adberbioak:	20 token	14 mota	(7.41% of hitzak)
determinat:	29 token	14 mota	(4.59% of hitzak)
konjuntzio:	30 token	12 mota	(4.61% of hitzak)
preposizio:	0 token	0 mota	(0.00% of hitzak)
kasuak:	209 token	11 mota	(5.26%)
entitateak:	6 token	6 mota	(100.00%)
esaldiak:	41		
hitzak/esa avg:	11	min: 3	max: 29

1. taula: ANALHITZAtik eratorritako emaitzen taula

Testuak kategoriaka aztertuz, zera ikus dezakegu: testua zenbat aberatsagoa izan orokorrean, orduan eta hitz mota bakoitza gehiago daude kategoria bakoitzaren barnean.

Goazen orain aipatutako hau ANALHITZAK eskainitako datuen bidez ikustera:

ESTATISTIKAK			
hizkiak:	3930	toke 40 mota (1.02%)	
hitzak:	570	token 388 mota (68.07%)	
lemak:	570	token 310 mota (54.39%)	
izenak:	279	token 174 mota (48.95% of hitzak)	
adjetiboak:	72	token 60 mota (812.63% of hitzak)	
aditzak:	111	token 46 mota (419.47% of hitzak)	
adberbioak:	12	token 7 mota (582.11% of hitzak)	
determinat:	33	token 16 mota (45.79% of hitzak)	
konjuntzio:	40	token 11 mota (27.02% of hitzak)	
preposizio:	0	token 0 mota (0.00% of hitzak)	
kasuak:	208	token 12 mota (5.77%)	
entitateak:	4	token 3 mota (75.00%)	
esaldiak:	37		
hitzak/esa avg:	15	min: 1	max: 43

ESTATISTIKAK			
hizkiak:	2629	toke 22 mota (0.84%)	
hitzak:	363	token 247 mota (68.04%)	
lemak:	363	token 173 mota (47.66%)	
izenak:	123	token 73 mota (533.88% of hitzak)	
adjetiboak:	31	token 25 mota (88.54% of hitzak)	
aditzak:	121	token 39 mota (333.33% of hitzak)	
adberbioak:	12	token 10 mota (83.31% of hitzak)	
determinat:	36	token 16 mota (49.92% of hitzak)	
konjuntzio:	31	token 11 mota (38.54% of hitzak)	
preposizio:	0	token 0 mota (0.00% of hitzak)	
kasuak:	174	token 13 mota (7.47%)	
entitateak:	1	token 1 mota (100.00%)	
esaldiak:	26		
hitzak/esa avg:	13	min: 6	max: 26

2. taula: Testu aberats bateko aditzak aztertzen

3. taula: Testu errepikakor bateko aditzak aztertzen

Irudi hauei erreparatuz, aditzen kategorian zentratzea gustatuko litzaidake. Ikus daiteke lehenengo irudiari dagokion testua idatzi duen pertsona horrek 111 aditz erabili dituela guztira eta horien artetik 46 desberdinak direla. Eskumako irudiari dagokion testua idatzitakoak aditz gehiago erabili ditu baina aditz horiek gehiago errepikatu ditu 121 aditzen artetik 39 bakarrik baitira desberdinak.

Beraz, hasieran, subjektiboa izan daitekeen iritzi edota pertzepzioa ANALHITZAK emandako datu zehatz eta zenbakizkoen bidez berresten da. Pertsona batek testu bat irakurtzen duenean, egokia eta lexikoki aberatsa dezala pentsa dezake; beste batek ordea, kontrako iritzia edota desberdina ager dezake. Kasu honetan, nire iritziak, ANALHITZAK ematen dituen emaitzekin zerikusia du; niretzat aberatsak izan diren testuek hitz mota aniztasun handia baitute; hori delarik edozein testuren aberastasuna ezartzen duten gakoak.

2. ORTOGRAFIA

Bestalde, ortografia ere aipatu beharreko aspektua da. Ortografia hizkuntza baten idazteko ikur sorta da, baita hauek nola erabili eta idazketa zuzena burutzeko arauak definitzen dituen jakintza alorra ere.

Batzuetan, ordenagailuz idazten dugunean, tekla zuzena zapaldu beharrean albokoa edota besteren bat sakatzen dugu; hitza txarto idazten dugularik. Corpora osatzen

duzen testuetan horrelako hainbat kasu ikusi ahal izan ditut, izan ere, batzuei letra bat faltatzen baitzaie, besteek berriz gehiegizko letra bat daukate, ...

Hala ere, beste kasu batzuetan norberak kontzienteki egindako akatsak direla ikusten da; adibidez, ingelesez idatzi beharrean ingeleses jartzen dutenean; hala ere jarri beharrean ala ere idazten dutenean, edota banatuta doazen hitzak batera jartzen dituztenean, edo alderantziz, ... Akats hauek, ikasleek s eta z desberdintzen ez dituztela eta hitz batzuen idazkera ezagutzen ez dutela erakusten dute,

Aipatutakoez gain, testu askotan errepikatzen den akats bat azpimarratzea gustatuko litzaidake. Testu askotan, a itsatsia txarto erabiltzen dela ikusi ahal izan dut. Gehienek arbel hitzari a itsatsia gehitzen diote beharrezkoa ez denean.

Ortografiari dagokionez, Xuxen zuzentzaile ortografikoa aipatzea gustatuko litzaidake. Batzuetan euskarazko hitz bat idaztean, s edo z erabili behar delako zalantza izan dezake pertsona batek. Horretarako online hiztegiak edo Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabil dezake; izan ere, azken honek ortografikoki txarto idatzitako testuak zuzentzeko aukera ematen baititu. Gainera, Word batean idazten duzunean ortografia erreparatzeko eskatu diezaiokegu programari. Horrela, gaizki idatzitako hitzak edo ulertzen ez dituenak gorritz azpimarratzen ditu nahiz eta ondo idatzita egon. Hori ere, akatsak zuzentzeko beste bide bat izan daiteke.

Berriro ere, Xuxen zuzentzaile ortografikora bueltatuz, bere erabileraren adibide bat ikusiko dugu:

Garrantzizkoa ikusten dut hezkuntza sistema aldaketa sozialetatik, teknologikoetatik eta ekonomikoetatik at ez gertatzea. Metodo tradizionala atzean uztean hezkuntzak etengabeko aldaketak izan ditu, baina oraindik gaur egun moldaketa ugari egin daitezke, batzuk martxan jarri direlarik.

Irakasle onak pentsamendua eta jarrera, berritzailea izan behar delakoan nago; hauxe gehien bat teknologia berriekin lotzen dut, berrikuntzazko hainbat adibideren artean. Azken finean, ezinbestekoa izango da irakasleak berrikuntzara pasatzea, esan bezala aldaketa sozialek eragiten dietelako nahitaez.

Aldaketa sozialen artean, era teknologikoa eta honetan arbela digitala aurki ditzakegu, Igorreko Haur Hezkuntzako eskolako irakasleak erakutsi ziguten bezala. Honek zerbait piztu zuen nigan, askoz ere zabalago ikusten dut orain arbela digitalarekin, adibidez, landu daitekeena. Irakasle hauek ezagutzean, gaiari buruzko hurbiltasuna transmititu zidaten, bestalde nire iraganeko eskola izanik, berrikuntza honetara gehitu dela ikustean, motibatu egin ninduen, nire etorkizuneko jomuga Igorreko eskolan dagoelako.

Arbelarekin eguneroko errutinak lantzeaz gain hizkuntzak ere landu daitezke, puntu hau oso interesgarria ikusten dut, teknologiek motibatu egiten dituzte haurrak (eta helduak), erakargarriagoak direlako. Ezagutzen ditudan lagunen artean %60ak Ingelesa alde batera utzi zuen batxilergoa bukatu genuenetik (motibazioarekin lotzen dut nik). Teknologia hauekin hizkuntzak modu ezberdin batean landu ditzakegu, haurren, hizkuntzak ikastearekiko ikuspuntua alda daiten, etorkizunari begira. Adibide bezala, nire iloba lehen hezkuntzako 1.mailan dago eta eskolako lehen egunetan ingeleseko ordenagailurako CD bat ekarri zuen, etxera etorri bezain pronto ingeleseko etxeko lanak zituela esanez CDa ordenagailuan sartuarazi zidan. Honek ingelesearekiko jakinmina piztu zion, eta aurreko urtean ez zuen ingelesa gustoko.

Hizkuntzei dagokionez, mintegian ikusitako hainbat aplikazio oso interesgarriak ikusi nituen. Afektuzko pertsonen haien ahotsa eta nahi duten hizkuntzan grabatu dezaketelako. Talde batek aipatu zuen bezala, irriti saioak ingelesez egiten dira hainbat lekutan. Praktikak egingo ditudan eskolak metodo hau erabiltzen du, honen arabera etorkizun batean Igorreko eskolan aplikatzea oso interesgarria irudituko zitzaidan, Arratia osoan entzuten den irriti batean parte hartuz. Bai euskaraz bai ingelesez. Irudi eta soinuarekiko izan dut beti arreta berezia, horregatik IKTak ikastetxeetan aplikatzeari buruzko kurtso bat egin nuen orain urte bi.

Guzti honi kontra eginez, esan beharra daukat metodo tradizionalak edo orainartekoak haien onurak dituztela, teknologia berriek hainbesteko dependentzia sortzen ari dira non orainarteko metodoak alde batera ustea lortzea da nire kezka. Adibidez DBH batzuetan liburua desagertu dira, nik haur hezkuntzan ez nituzke gehiegi sartuko IKTak, esperimentazio, manipulazio, paper, liburu, ukimenek garrantzia dutelako nire ustez. Honi adibide bat emanez, liburu betetako apal baten aurrean denek sortu dugu jolas sinbolikoren bat noizbait, horrelakorik egon ezean sormenari zati bat kenduko genioke, jolasak funtzio baterako baino ez ziren erabiliko, bakoitzak bere helburu bakarria izanik.

1. irudia: Ikasle batek idatzitako testu zatia Xuxen zuzentzaile ortografikoarekin

Orain, testu hori zuzentzeko zenbait aukera eskaintzen ditu Xuxenek. Sagua azpimarratutako hitzaren gainean jarriz hitz okerra dela esango digu. Hitzaren gainean bi aldiz klikatuz gero, hitz hori aldatzeko zenbait aukera eskainiko dizkigu, ordea. Gainera, hitz horiek Interneteko corpusean agertzen diren frekuentziaren arabera ordenatzea ere posible da.

Talde batek aipatu zuen bezala, iratzi sailak ingelesez egiten dira hainbat lekutan. Praktikak egingo ditudan eskolak metodo hau erabiltzen du, honen arabera etorkizun batean Igoerako eskolan aplikatzea osi: Hitz okerra ita inidiuko zitzaidan, Anrria osoan entzuten den irati batean parte hartuz. Bai euskaraz bai ingelesez. Inudi eta soinuarekiko izan dute beti arretia berezia, horregatik ICTak ikastetxeetan aplikatzeari buruzko kurso bat egin nuen orain urte bi.

Hitz okerra

2. irudia: Xuxenek hitz okerra dela esaten du

Guzti honi kontra eginez, esan behar da aukar metodo tradizionalak edo orainanekoak haien onurak dituzela, teknologia beriek hainbesteko dependentsia sortzen ari dira non orainarteko metodoak alde batera uztea lortzea da nire kezka. Adibidez DEH batzuetan liburuzak desagertu dira, nik haur hezikuntzan ez nituzke gehiegi sartuko ICTak, esperimentazio, manipulazio, paper, liburu, ukimenek garrantzia dutelako nire ustez. Hori adibide bat emanez, liburuz betetako apaletan auzentzen denek sortu dugun jolas sinbolikoen bat nolabait, homelakorik egon ezaren soinetari zati bat kenduko genioke, jolasak funtzio baterako baino ez ziren erabiltzeko, bakoitzak bere helburu bakarra izanik.

homelakorik
homelakorik
homelakori
homelakorik
tomelakorik

Quieno que itaxen proposen
 Utilizar el diccionario perso
 Al hacer doble clic sobre un
 Al proponer la corrección de una palabra, ordenar las propuestas en función de su frecuencia, basándose en los datos estadísticos del corpus en su base de Internet.

Aidatu homengatik: personal tiene que estar registrado y debe haber iniciado una sesión en el sistema.

3. irudia: Aldaketak egiteko aukerak eskaintzen ditu Xuxenek

3. SUBJEKTU ETA ADITZAREN ARTEKO KOMUNZTADURA

Ortografiaren aparte, subjektu eta aditzaren arteko komunztadura eta horrekin estuki lotuta ergatiboa ere aztertu ditugu. Testu gehienetan subjektu eta aditzaren arteko komunztadura falta duten kasuak ikusi ahal izan ditut; batzuetan komunztadura hori gertatzeko beharrezkoa zen ergatiboaren erabilera; beste batzuetan ez. Kasu hauetan, batzuetan aditza zen hitz desagokia beste batzuetan berriz, subjektua zen pertsona edo elementua.

Honek argi uzten du testu horien idazleek ez dakitela ergatiboa erabiltzen eta gainera aditz formak ere ez dituztela menperatzen.

Goazen pare bat adibide ikustera:

- Lehen irakaslea zen informazio iturri bakarra, baina, orain **ikaslea** bere kabuz informazioa aurki ditzake.

Kasu honetan, ikaslea hitzak norik kasuari dagokion k hizkia falta du; hau da, ergatiboa falta du.

- *Interneten aurki daitezkeen baliabideak edonolakoak dira, gehienak oso baliagarriak haurren heziketarako, askotan arazoa, baliabide hauen berri ez **dauzkagula** edota erabiltzen ez **dakigula** da.*

Esaldi honen kasuan, lehenengo aditza singularrean idatzi beharko litzateke; idatzitako aditzaren orde, daukagula jarri. Bigarrenaren kasuan, aditz egokia dakizkigula litzateke.

Aipatutako komunztadura eza horrek esaldia ez ulertzea edota beste era batera ulertzea dakar. Horrela, zaila izango da testu bat bere osotasunean era egokian ulertzea eta interpretatzea.

4. BESTE ZENBAIT ASPEKTU

Gainera, testuen ulerkuntza zailtzen duten beste zenbait oztopo ere sumatu ditut testu batzuetan, kasu honetan, bakoitzaren adierazpen mailaz hitz egiten ari gara. Batzuek hitzak ez dituzte ordena egokian kokatzen, edo era desegokian idazten dituzte esaldiak eta ez dago zer esan nahi duten ulertzerik.

Adierazpen maila horrekin lotuta, erderakadei buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Askok lehenengo esaldia erdaraz pentsatzen dutela eta gero euskarara itzultzen dutela ikusten da; izan ere, erdarazko esaldietako ordena zein hitzak edota esapideak erabiltzen baitituzte zenbait kasutan.


Erderakada horien adibide bat ondorengoa izan daiteke:

*“**Segun** eta zein errealitatearen aurrean gauden, material bat edo beste aukeratuko dugu.”*

Euskaraz ez dago erdaraz erabiltzen den segun hitz hori erabiltzerik. Horren orde, hurrengoa idatzi daiteke:

Aurrean daukagun errealitatearen **arabera**, material bat edo beste aukeratuko dugu.

Jarraian, testuetan gehien errepikatzen diren akatsak grafiko baten islatuta ikusi ahal izango dira.



1. grafikoa: Corpuseko testuetako akats errepikatuenak

Beraz, grafiko honi erreparatuta argi ikus dezakegu, akatsik ohikoenak subjektu eta aditzaren arteko komunztadura ezarekin eta adierazpen desegokiarekin lotutakoak direla, adierazpen desegoki horren barruan, esaldien ordena desegokia, zentzu gabeko esaldiak, txarto deklinatutako hitzak, ... sartzen direlarik.

TESTU ABERATSENAK ETA POBREENAK KONPARATUZ

Ikasketa berak egiten dabilzan eta antzeko adina duten pertsonen artean egon daitezkeen hizkuntza – maila desberdintasunak ikusteko, orokorrean testurik aberatsenak eta pobreenak izan direnak erkatuko ditugu.

Testu aberatsenak aukeratuz gero, gramatikaren alderdi guztiak egoki erabiltzen dituztela ikus daiteke; hau da, lexikoa, anitza da, sinonimoz betea eta egitura jasoez hornitua. Gainera, adierazpena eta subjektu eta aditzaren arteko komunztadura zaintzen dute.

Testu aberats horietako bizpahiru adibide ikusiko ditugu:

- Sinonimoak erabiltzen dituzte: *Irakaskuntza hau nola egin da gakoa; hori dela eta, zer **medio** erabili daitezkeen aztertu, orain arte erabilitako materiala nahikoa den edo motibagarriagoa eta berriagoa dena sar daitezkeen baloratu eta irakasleek **material** edo proiektu berriak integratzearekiko erakusten duten jarrera kontutan hartu beharko dira.*
- Esapide landuak erabiltzen dituzte: *Idea honi **jarraiki**, eta teknologiek ikaskuntzan laguntzen dutela sinistuta, ezinbestekoa deritzot bizitzako beste*

hainbat arlotan gertatu bezala, hezkuntza ere ematen diren aldaketei egokitzea eta teknologia berrien munduan integratzea.

- Subjektu eta aditzen arteko komunztadura zaintzen dute: *Umeen lehenengo eskola egunetan, irakasleekin eta gainerako hurrekin duten lehenengo hurbilketan, **batzuentzat** erabiltzen den komunikatzeko hizkuntza ezaguna **izango da** eta beste batzuentzat, aldiz, ez.*

Ostera, testu pobreenetan zentratuz, biek akats mota berdinak dituztela esan daiteke; hainbat aldiz errepikatzen direlarik subjektu eta aditzaren arteko komunztadura falta. Horren barne aipatzeko da ergatiboaren erabilera eza.

Gainera, biek erderakadak erabili eta hitzak txarto deklinatzen dituzte, kasu desegokiak erabiliz eta esaldiaren zentzua apurtuz. Horrez gain, testuaren ulermen orokorra zailtzen duten esaldi batzuk aurki ditzakegu testuetan. Esaldiak txarto adierazita, hitz desegokiekin edota alderantzikako ordenan idatzita daude.

Testu hauei dagozkien zenbait akats aztertuko ditugu:

- Hitzak txarto deklinatuta daude: *Alde batetik, txikiekin idazteko eta marrazteko aplikazioak oso interesgarriak iruditu zaizkit, baina, hauek hurrekin klasean erabiltzeko zailtasunak **daudelaren** ustean nago.*
- Subjektu eta aditzaren arteko komunztadura falta dago: *Web gune honetan zenbait **herri** parte hartzen dute.*
- Erderakadak erabiltzen dituzte: ***Segun** eta zein errealitatearen aurrean gauden, material bat edo beste aukeratuko dugu.*

Lexikoari dagokionez lau testuek egokia erabiltzen dutela esan genezake; hala ere testu eskasenetan erabilitako lexikoa ez dela oso anitza. Lexikoa kategoriaka aztertuz gero, ezin daitezke testu hauen arteko benetako desberdintasunak igarri; izan ere testuen pertzepzio orokorrean baitago giltza. Testu osoak irakurriz gero, egiturak edota esapideak, lokailuak, ... testu landuagoetan aurki daitezkeen elementuak dira; ez dira adibidez, egunerokotasunean lagunekin edota ezagunekin komunikatzeko erabiltzen diren hitzak.

5.KAPITULUA

Ondorioak

Berrero ere, helburuen kapituluan aipatutako helburu bat ekarri behar dugu gogora; hurrengo, hain zuzen ere: curriculumean oinarrituz, ikasleek hizkuntzari dagokionez lortu beharreko gaitasunen edota konpetentzien maila zein den aztertzea.

Beraz, aurreko ataleko emaitzak kontuan hartuz, ikasleak gradua amaituko dutenean eskuratuko duten C1 mailatik gertu edo urrun dauden ondorioztatu beharko dugu; maila hori lortzeko gaitasun edo konpetentzia nahikoa garatu duten edo ez erabaki beharko dugu.

C1 mailan kokatu ditzakegun jakiteko, lehenengo maila horretan dauden pertsonen zer eskatzen zaien aztertu behar izan dugu. Horri buruzko informazioa Proiektuaren garapena izeneko kapituluko marko teorikoan azaldu dugu jada.

Azaldu dugun informazioak, hasteko, testu ulermenaz hitz egiten du baina aztertu dugun gaiarekin erlaxionatuta, bigarren ideiak dioena hartu behar da kontuan; hau da, hizkuntza maila honetako pertsonak idatzi zehatzak eta argiak egin behar dituzte baita horiek ondo egituratu ere.

Beraz, argi dago corpusaren parte diren testuak idatzi dituzten pertsona horiek ez dute C1 maila izateko gaitasun nahikoa garatu edota erdietsi. Gehienek ergatiboa erabiltzeko zein aditzaren eta subjektuaren artean komunztadura ezartzeko zailtasunak dituzte; hori testuaren ulermen azkarrean traba edota oztopo bihurtzen delarik.

Gainera, testuak argiak izan behar badira, ulerterrazak izan beharko dute. Testu batzuetan ordena desegokia edota momentuan bertan zentzurik ez zeukaten hitzak erabili direla esan dugu; beraz, ere azken hau testu horiek C1 mailatik behera kokatzen den pertsona batek idatzi duela ideia sostengatzen duen beste arrazoi bat izan liteke.

Lan honen hasieran, ikasleak unibertsitateko ikasleak direla eta euskararekiko egoera desberdinak bizi dituztela azaldu dugu. Beraz, hori batzuek C1 eta beste batzuek maila baxuagoa izateko arrazoa izan daiteke. Azken finean, ikasleen testuinguru soziokulturalak eta soziolinguistikoak eragina izan du, beraiek euskararekiko duten interesean edota barneratzean.

Ikasleen ama hizkuntza maila bat edo beste izateko gakoetako bat izan daiteke; hau da, pertsona baten ama hizkuntza euskara bada, pertsona horrek berez, konturatu gabe, barneratuko ditu adibidez, ergatiboaren erabilera edota subjektu eta aditzaren arteko komunztadura.

Baina, ikasle baten ama hizkuntza gaztelera bada, posibleena berak euskaraz idazteko erdaraz pentsatuko eta hori ordena berdinean euskara itzuliko du. Kasu honetan gaztelera ez dago ergatiboaren parekorik; beraz, hauentzat zailagoa izango da ergatiboaren erailpen egokia egitea. Hizkuntza arrotz bat ikasten duzunean zurearekin erkaketak egin ditzakezu kontzeptuak hobeto ulertzeko baina ergatiboaren kasuan, hori ez da posible.

Etorkizunerako proposamenak

Nire ustez, beharrezkoa da unibertsitatean euskarazko C1 maila hori ematen duen lege horren birplanteatzea. Izan ere, errealitatea guztiz ezberdina da, eta ikerketa honetan erabat frogatuta geratu dela esan genezake.

Ehuneko zehatz bat euskaraz ikasiz gero, soilik ematen dizue hizkuntza agiri hori, baina ikasketen zati bat euskaraz egiteak ez du berresten zuk C1 maila daukazunik; izan ere horretarako hizkuntzaren barnean dauden aspektu guztietan lortutako kompetentzia edo gaitasunak ebaluatu behar baitira. Horregatik, edonoren hizkuntza maila zein den erabakitzeke, formarik justuena bai idatzizko bai ahozko gaitasuna neurtzen duten probak egitea dela uste dut.

Bestalde, etorkizunean corpusen ikas – irakas prozesuan erabili daitekeen material bat sortzea oso garrantzitsua eta batez ere, baliagarria izango litzakeela uste dut. Testuetan erabiltzen diren kasuak sakonki aztertzen dituen tresna digital batez ari naiz. Jakina da, ANALHITZAK testuko kasuen berri ematen duela. Hala ere, ez du ergatiboa aztertzen eta gainera ez du subjektu eta aditzaren arteko komunztaduraz ezta errorean inguruan ezer esaten. Horregatik, tresna honi esker, testuan agertzen diren kasu horien artean ergatiboa ere sartuko litzateke. Ondo legoke tresna horrek era berean batetik subjektua eta bestetik predikatua aztertzea.

Baliabideak aipaturako azken azterketa hori egiten badu, ikasgelan subjektu eta aditzaren arteko komunztadura lantzeko erabili ahalko da; esaldia zatituta dugunean bakarrik subjektuan eta aditzean zentratu eta horien arteko komunztadura landu daitekeelako esaldia osatzen duten gainerako elementuak alde batera utziz.

Bibliografia

Aldizkariak, apunteak, liburuak, tesiak eta bestelako testuak

Aldabe, I., Arrieta, B., Diaz de Ilarraza, A., Maritxalar, M., Niebla, I., Oronoz, M., Uria, L. (2008). Hizkuntzaren Tratamendu Automatikoa Euskararen Irakaskuntzan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 66 zk., 61-69 .

Education Comitee.(2001). Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment. Strasbourg: Language Policy Division

Legarra, H (2017). *Hizkuntzen i(r)akaskuntza. marko teoriko orokorra*. UEU, Udako Euskal Unibertsitatea

Maritxalar M., Díaz de Ilarraza A., Oronoz M. (1997). *From Psycholinguistic Modelling of Interlanguage in Second Language Acquisition to a Computational Model*. Madrid

Maritxalar, M. (1999). *Mugarri: Bigarren Hizkuntzako ikasleen hizkuntza ezagutza eskuratzeko sistema anitzeko ingurunea*. (Doktorego tesia da). Informatika fakultatea UPV-EHU

Martinez, E. (2005). *Arikiturri: Corpusen erabilera hizkuntzaren ikaskuntzan*. (Master bukaerako proiektua da). UEU, Udako Euskal Unibertsitatea

Otegi,A. , Imaz, O. , Díaz de Ilarraza, A., Irukieta, M., eta Uria, L. (2017). ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural aldizkaria*, 58zk., 77-84.

Txabarri, J.J, Elozegi, L., Agirre, H., Larramendi, A., Maiz, A., Gonzalez de Txabarri, eta al. (2015). *Helduen euskalduntzearen oinarritzko curriculum*. Donostia: HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea argitaratzailea.

Webguneak

Gonçalves de Freitas, L. (2004). *Metodologias de ensino de Língua Estrangeira. Quedanners digitals*. Hemendik berreskuratua:

http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=secciones.VisualizaArticuloSeccionIU.visualiza&proyecto_id=361&articuloSeccion_id=4919

IXA Taldea (2017). *Analhitza powered by Clarin*. Hemendik berreskuratua: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>

IXA Taldea eta Elhuyar (2014 – 2017). *Xuxen zuzentzaile ortografikoa*. Hemendik berreskuratua: <http://xuxen.eus/es>